

# ZERO ZABOR URETAN 2026

TXOSTENA



Zeharkaldia itsaso  
osasuntsu baten alde

Travesía marítima  
por una mar sana

2026  
UZTAILA \ JULIO  
2026

2-4  
BILBO

4-7  
PORTUGALETE

7-10  
BERMEO

10-13  
ONDARROA

13-16  
MUTRIKU

16-19  
GETARIA

19-21  
HONDARRIBIA

22-24  
PASAIA

BISITAK ONTZI-MUSEORA  
VISITAS AL BARCO-MUSEO

ITSAS HONDAKIN ARRANTZAK  
PESCAS DE BASURAS MARINAS

ITSAS ZAINDARI GUNEA PORTUAN  
ZONA ITSAS ZAINDARI A PIE DE PUERTO

SORMEN BIRZIKLATZE TAILERRAK  
TALLERES DE RECICLAJE CREATIVO

ITSAS ERRALDOIEN MARTXAK  
MARCHAS DE GIGANTES DEL MAR

ZERO ZABOR URETAN TOPAKETAK  
ECUENTROS ZERO ZABOR URETAN

HONDAKIN BILKETAK  
RECOGIDAS DE RESIUS

PROIEKZIOAK ONTZIAN  
PROYECCIONES A BORDO

Informazio eta erreserbak  
Información y reservas  
619 81 42 25  
info@mater.eus



EURO DURLANITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia

Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

GOBIERNO DE GUZQUIA

LIBERA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

GOBIERNO DE GUZQUIA

## SARRERA

**ZERO ZABOR URETAN** kanpaina uztailean izango da Euskal Kostaldeko hainbat portutan, **MATER Ontzi Museo Ekoaktiboak** bultzatuta, hainbat administrazio eta erakunderekin kolaborazioarekin, bere seigarren edizioan. **«Hondakinik onena, sortzen ez dena»** lelopean kanpainak honek itsas hondakinen arazoaz kontzientziatu nahi ditu herritarrak eta prebentzioan inplikatu.

Bertan tokian tokitik abiatuz globala den arazoari eta haren irtenbideei ekin nahi zaie sinergiak bilatuz kanpaina lekua hartzen duen 8 udalerrietako hainbat talderi zuzendutako proposamenen bitartez; lan egiten diren eragileen artean udalak, komunikabideak, ikastetxeak, gizarte-erakundeak eta merkataritza nabarmentzen dira. Uztailean zehar ***Itsaso osasuntsu baten aldeko itsas zeharkaldia*** egiten da MATER ontzian udalerri guzti hauek bisitatuz eta elkarrekin garatutako egitaraua eskainiz. Parte-hartze prozesu honen haria komunitatean sortutako bi erraldoi berezi dira: BIO, Bizitzaren Sarea, bizidunak zaintzearen garrantzia adierazten duena. Eta ZABOR, Itsas Hondakinen Munstroa, gizarte gisa ditugun kontsumo-ohitura suntzitzaileen emaitza.

Informatuta dauden eta parte hartzen duten kontsumitzaileen zerregina oso garrantzitsua da hondakinen murrizketa sustatzen duten ohituren aldaketa ahalbidetzeko. Itsasoko zaborraren % 80 lehorreko hondakinen egungo kudeaketatik dator, baita gizartearen kontzientziazio eta konpromiso faltatik ere.

ZERO ZABOR URETAN arazo hori ikusarazten saiatzen da, eta hause-narketarako eta konponbideak bilatzeko prozesu parte-hartzailea sortzen laguntzen du, kanpainiako portuetan parte hartzeko jarduera irekiekin:

- Bilbo uztailaren 2tik 4ra
- Portugalete uztailaren 4tik 7era
- Bermeo uztailaren 7etik 10ra
- Ondarroa uztailaren 10tik 13ra
- Mutriku uztailaren 13tik 16era
- Getaria uztailaren 16tik 19ra
- Hondarribia uztailaren 19etik 21ra
- Pasaia uztailaren 21tik 24ra

Euskal kostaldea, kanpaina honen bitartez, plastikozko kutsaduraren aurkako nazioarteko hilabetearekin bat egiten du *Plastic Free July* mugimenduarekin. Herri bakoitzean publiko guztietarako jarduera mordoa eskainiko ditugu, doakoak eta partehartzaileak.

Kanpaina honek zazpigarren edizioa ospatzen dugu 2026an, erakunde publiko eta pribatu ezberdinen laguntzarekin, hala nola Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jsangarritasun Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasunaren eta Ingurune Natural saila eta Libera proiektuarena, SEO Birdlife eta Ecoembesen elkarlanean.

Beste eragile batzuk, hala nola Donostiako Urpeko Zinemaren Nazioarteko Zikloa (CIMASUB) edo EHUKo Plentziako Itsas Estazioa (PIE), kanpaina osoko jardueretan parte hartzen dute. Herrietako eragileak eta udaletxeak ere erabakigarriak izan dira antolakuntzan.





## AURREKARIAK

### MATER

MATER baxurako euskal arrantza-ontzi tradizional bat da, Ontzi Museo Ekoaktibo bihurtua, gizartea bere ingurumenaren kontserbazio aktiboan sentsibilizatu eta inplikatu nahi duena. Upategi zaharrearantz hezkuntza-lana egiteko gela bat izateko egokitu ondoren, euskal boniteren egitura tradizionalari eta funtsari eusten jarraitzen du, eta gure itsasertzean itsas kanpainak eta dibulgazio-ibilaldiak egiteko aukera ematen du.

Gaur egun, MATER, Museo Ekoaktibo gisa, ingurumen-hezkuntza eta -sentsibilizazioa lantzen ditu bere jardueren bidez. Lan hori egin ahal izateko, hainbat proiektu eta kanpaina egiten dira, egungo ingurumen-arazoari hainbat ikuspegitik heltzeko.

ZERO ZABOR URETAN kanpainaren helburua hortaz, gaur egun jasaten ditugun ingurumen-arazoak konponbideetan herritarrak inplikatzeko da, itsas hondakinen arazoa azpimarratuz.





## INGURUMEN ARAZOA

Itsasoa, gizadiaren bizi eta despentsa-sorlekua, zoritxarrez, zaborrontzi handi bat bihurtu da gure hondakinengatik, hobetu beharreko birziklapenaren kudeaketa eta herritarren kontsumo ohitura arduragabeengatik.

Itsas hondakina, gehien bat hondakin plastikoz osatua, ez da inoiz desagertzen, ikusteari uzten diogu soilik, ozeanoko geruza sakonenetan ezkutatuta edo uraren, airearen edo lurraren parte izatera igarotzen diren partikula ñimiño bihurturik, eta, aldi berean, edan, arnastu edo jan egiten dugu. Kreditu-txartel baten baliokidea da gure organismoak astebetean mikroplastikoetan xurgatzen duena. Ingurumen-arazoa, baina baita osasun publikoarena ere.

MATER Museo Ekoaktiboan, prebentzioaren aldeko apustua egiten dugu ingurumen-hezkuntzako jardueren bidez, "Hondakinik hobere-na, sortzen ez dena" lelopean, MURRIZKETAN eragin nahian: gutxiago eta hobeto kontsumitzean. Ingurumena eta gure osasuna zaintzeko modu da, guztion esku dagoena.



## JARDUERAK

Portuz portuko egitarau guztiak deskargatzeko:

[www.zerozaboruretan.eus](http://www.zerozaboruretan.eus)

ZERO ZABOR URETAN egitasmoaren jarduerak itsasoko hondakinen arazoa modu didaktiko eta atseginean ezagutzeko, parte hartzeko eta konpontzeko aukerak eskaini nahi dute.

## ONTZIAN

### ONTZI-MUSEORA BISITA GIDATUAK

Bisita ekoaktiboa itsasoaren kontserbazioan eta zaintzan enblematikoa den itsasontzi bat ezagutzeko aukera ematen du. Zergatik da garrantzitsua itsasoa gure bizitzetarako? Zer gertatzen zaigu gaixotzen denean? Nola lagundu dezakegu kontserbatzen? Bisita gidatu honetan kontzeptu hauek eta beste batzuk ulertuko ditugu.



### ITSAS ZAINDARI gunea



Ezagutu itsasoko hondakinek nola eragiten diguten eta hauek geldiarazteko gure esku ditugun hamaika aukera ezberdin. Jolasak, dinamikak eta erakusketa txiki baten bitartez publiko guztietara egokitzen den itsasoa zaintzeko gunea duzue.



### URPEKO ZINEMA ONTZIAN

Udako zinema aire librean ontziko kubiartan. Donostiako Nazioarteko Itsaspeko Zinema Zikloko (CIMASUB) laburmetrairik hoberenak ikusi ahal izango dira, baita MATEReko komunitate ekoaktiboaren baitan sortutako bideoak ere. Udarako momentu ahaztezin horietako bat izango da. Etzazu galdu!



### SORMEN BIRZIKLATZE TAILERRAK



Arte lanak sortuko ditugu itsasoan aurkitzen dugun hondakin nagusietako batekin: plastikoa. Jarduera honetan, plastiko horiei bizitza berria emango zaie, plastiko material ezberdinekin collageak sortuz eta benetako kontzientziazio ikurrak bihurtuz, gogoratu dezagun hondakin hoberena, sortzen ez duguna dela.

### ZERO ZABOR URETAN TOPAKETAK

8 topaketa euskal kostaldean zehar esperientziak trukatzeko, itsaso osasuntsuaren aldeko sareak ehuntzen jarraitzeko. Gune irekiak izango dira, non erakundeek, kolektiboek, administrazioek eta herritarrek itsas zaborren murrizketaren inguruko kezkak, ikaskuntzak, erronkak eta irtenbideak partekatu ahal izango dituzten. Tokiko ekimen bakoitzaren atzean inspirazio-iturri diren ideiak eta benetako aldaketak eragiten dituzten ekintzak daudelako. Elkarri entzuteko, elkarrengandik ikasteko eta, esperientziak partekatzen ditugunean eta komunitatean lan egiten dugunean, gure itsasoetan hondakin gutxiago eta bizitza gehiago izango duen etorkizuna eraikitzeko gai garela erakusteko bidaia.



## ITSAS HONDAKIN ARRANTZA NABIGAZIOAK

Dibertsioa eta ingurumenaren zaintza uztartzen dituen jarduera, MATERen nabigatuz. Benetako baxurako arrantza-ontzi bat erabiliko dugu, arrainak arrantzatu beharrean, flotatzen duten itsas hondakinak eta mikroplastikoak harrapatzeko, berariazko tresnarekin eta herritarak ingurumena zaintzeko bereziki diseinatutako dinamikarekin.





## PORTUAN

## NI ITSAS ZAINDARI: Merkataritza itsasoaren alde

Portu guztietan, modu aktiboan lankidetzan aritzen gara tokiko merkatariekin, gure kontsumo arduratsuaren bidez eragin negatiboa murrizteko eta bizidunen zaintza areagotu dezakegula ideia helarazteko.

Edizio honetan, herriko erakusleihoek plastikozko hondakinak murrizteko beharra helarazten laguntzen dute kartelarekin bat egin dute bertako neska-mutilek sortutako mezuekin bateratzeaz gain.

Tokiko merkataritza-elkarte guztiek elkarlanean aritzen dira kanpaina honetan eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak babesten du.



## ITSAS ERRALDOIEN MARTXA



Martxa hauek herriko kaleetan zehar egiten dira ikusezina ikusarazteko eta bizidunen zaintza aldarrikatzeko. ZABOR hondakinen munstroa da eta BIO bizitzaren sarea. Erraldoi hauek komunitatean sortu dira itsasotik jasotako zaborrarekin eta Pasaiaiko emakume taldeak kakorratzekin egindako algekin eta itsas animaliekin.

Biak ikusezin egiten ditu gizarteak, sortzen dugun zaborra ez dugu-lako ikusi nahi; eta biodibertsitatea, bakarrik erabiltzen dugulako.

BIO gara! Zaintzen gaituena zaindu behar dugu eta ZABORekin amaitu. Batu ditzagun indarrak eta planeta osasuntsu bat aldarrikatu.

Kontsultatu portu bakoitzeko egitarauak.

## ITSAS HONDAKIN BILKETAK

Portu bakoitzean hondakinen bilketa handia egingo da, itsas hondakinak prebenitzeko, eta horien problematika aztertuko da aldeztatik hondakinak pilatzen diren tokiko erakundeekin aztertu den eremuetan.



## BIO-ZABOR KARTELEN ERAKUSKETA

Aurten erakusketa politik egin ditugu portu bakoitzean ZABOR, BIO eta portu bakoitzeko neska-mutilek egindako itsaso osasuntsu bat eskatzen duten ehunka mezuen laguntza erraldoiarekin batera.

Nola egin ZABOR txikiagoa eta BIO handiagoa? Horren bueltan aritu dira mezuak eta ZERO ZABOR URETAN itsas zeharkaldia gelditzen den portuetan zehar bidaiaren aurretiko erakusketa ibiltari honetan, neska-mutilek nola egin dezakegun esaten digute: gure eguneroko ohiturekin nahi dugun ingurunea eta etorkizuna sor ditzakegu.





## SENTSIBILIZAZIO ETA AHALDUNTZE HITZALDI SAIOAK

ZERO ZABOR URETANen lehen etapa portu bakoitzean beti bertako komunitatea sentsibilizatzen abenturan indarrak batzen dituzten pertsonak eta taldeak bilatzean dago eta horretarako, badakigu eskolak beti direla sorkuntza eta irudimen iturri.

Edizio honetan, herriko udalen laguntzaz, herriko ikastetxe guztiei zuzendutako udal espazioetan hitzaldiak garatu ahal izan ditugu eta itsasoa zaintzeko ehunka kartel eta mezu zoragarri sortuz erantzun dute.



## BOLUNTARIOTZA

Boluntariotza honen helburua MATER ontzian kanpainan laguntza izatea da, euskal kostaldeko hainbat portuetan zehar. Gutxieneko egonaldia portu batekoa da (2 egun) eta jarduerak laguntza logistiko hutsaren (sukaldaritza eta garbiketa) edo ingurumenarekiko kontzientziaren artean aldatzen dira ITSAS ZAINDARI espazioan.

Boluntario guztiek jasoko dute:

- MATER taldearen prestakuntza itsas ingurumenaren inguruko sentsibilizazioan, praktika jasangarrietan eta egin beharreko lanari dagokionean.
- Aurreko portutik edo hurrengo porturako bidaia egiteko aukera.
- Ontzian egonaldia eta otorduak barne.
- Parte hartzeko ziurtagiria.





## NABIGATU ETA LAGUNDU

Kanpainarekin eta haren helburuekin bat egiteko aritzeko eta inplikatzeko modu bat da MATER ontzian kanpainako portuen artean nabigazioa egitea eta horregatik diru-kopuru bat ematea.



## HARREMANETARAKO

### Izaskun Suberbiola

Zuzendaria

+34 626738415

[zuzendaria@mater.eus](mailto:zuzendaria@mater.eus)

### Markel Elizalde

Komunikazioa

+34 619814225

[komunikazioa@mater.eus](mailto:komunikazioa@mater.eus)

### MATER

#### Ontzi Museo Ekoaktiboa

San Pedroko arrantza portuan

20110 PASAIA (Gipuzkoa)

[www.mater.eus](http://www.mater.eus)

Informazio gehiagorako: [www.zerozaboruretan.eus](http://www.zerozaboruretan.eus)